

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak funtzionatzen duela ziurtatzeko ezin bestekoak izango lirateke finantza baliabideak, gure aberastasunari eusteko aukera ematen digute eta, gure kasuan, gure aurrezkiak. Baliabide intelektualak eta giza baliabideak, gure enpresaren funtsezko baliabideak dira.

Enpresak aurrera egiteko, hainbat baliabide fisiko behar ditugu. Nagusiki, lana egiteko leku eroso bat behar dugu, horretarako UGGASA enpresarekin jarri gara kontaktuan, hauek lan egiteko leku bat alkilatuko digute. Ondoren, guk lana egiteko beste hainbat material ere beharrezkoak dira. Webgunea sortu eta diseinatzeko, eta finantza baliabideak aurrera eramateko, ordenagailu bana beharko ditugu, guztira lau. Bestalde, salmentarako mugikor bat lortu dugu, eta enpresako berezko zenbakiarekin baliatuko gara.

Iratik, gure altzariak diseinatuko ditu, izan ere, sormen handia du eta oso marrazkilari ona da. Berak, orri batean marraztuko du eta koloreak ere zehaztuta utziko ditu, eta ondoren, guk altzaria margotzen eta moldatzen lagunduko diogu. Horretarako, marrazteko materiala beharko dugu, pintura, arkatzak, brotxak...

Informatika kontuetaz, Aimar arduratuko da, aurretik aipatu dugun bezala, Aimar udaran informatika klasetan aritu da eta ondo menderatzen du. Gainera elektronika ekipoa ona duenez eta gustura sentitzen denez hori erabiliko du, izan ere, oso garrantzitsua da ekipoa ondo erabiltzen jakitea webgunea eta sare sozialak aurrera eraman ahal izateko. Honen koordinazioaz, Uggasaren bulegoan arituko da eta hemen konexioa eta beharrezko baliabideak izango ditugu.

Finantza baliabideaz Maddi arduratuko da, hain zuzen ere, ekonomia gogoko du eta zalantzak izanez gero bere osaba ekonomista da eta bera prest dago noiz behinka laguntza emateko. Bere laguntza beharrezkoa izango dugu, berak esango digulako zer paper motak behar ditugu gobernuarekin arazorik ez izateko eta gainera hasieran Maddiri erakutsiko dio nola heldu aberastasunari eta betebeharrak eragiten dizkietenak zordunei egiteko.

Salmenta eta produktuaren ezagutza Anek eramango du aurrera. Horretarako, mugikor bat bilatu dugu, bere mugikor pertsonala ez erabiltzeko. Lan honetan, produktua ezagutzera emango dugu, bereziki sare sozialak erabiliko ditugu, bertan jende askok ikusi ahal izango duelako. Gainera, gure bezero potentzialekin harremanetan jarriko gara haiek produktua aurkeztu dezaten.

